

Manifestu atzeratua

Sarrera

Aurkezpena

Ibaik eta biok Bartzelonako Unibertsitatean ezagutu genuen elkar. Biok ere euskara, euskal literatura eta euskal kultura irakasten genuen/dugu, irakasle gonbidatu (edo lektore) gisa. Duela hiru urte oraindik ez zegoen euskara sailik, eta gure jakintza-eremua hispanikasetan edota katalan, ingeles, frantses, galego, portugez eta horrelakoetan sailkatzerik ez zutenez, baina modernitateak ezinbestean eskatzen duen **sailkatu behar** ezin baztertukoari erantzun beharrez, eslavetan kokatu gintuzten.

Eskolan era askotako **ikasleak** izan ditugu eta ditugu, eta gehienek ere halako aurreiritzi edo aurretiazko ikuspegi bat dute *euskaldun* kategoriari eta euskal kulturari buruz, eta “**basko-basko**” graduatzailea erabiltzeko joera dute. Euskalduntasuna esentzializatzeko joera hori ederki ikusten da Bartzelonako euskal jatetxeetan ere. Batzuk ezin kitschagoak dira eta *Euskal Herri tipikoa*(traineruak, baserritarrak, sagardo-kupelak, mendi-zelai berdeak, etab., **oraingoz ez dugu poxpolin jantzitako zerbitzaririk** ikusi, halere) islatzen eta erreproduzitzen saiatzen dira.

Basko-baskoari eta EH tipikoari lotutako topikoen sorrera eta hedapena aztertzen saiatu izan gara, Imanol Galfarsorok aipatzen dituen “museologun antropologozale atzerakoi badaezpadako”ek bultzatutako “euskaldun’ kategoriaren eraikuntza subordinatzailea” lehertu nahian.

Garai hartan, euskal narratiba (are euskal Literatura osoa ere) zaharberritzera zetorren **kresal usaineko** euskaldun otzandu eta asimilatuaren apologiatxo bat argitaratu zen normalizazio garai bete-betean, eta luze jardun genuen haren inguruan, buenismoaren atzean ezkututzen duen ideologia belaunikatzailea larrutzen.

Bien bitartean, **Tatxatuaren azpiko nazioaz** idatzi zuen Ibaik. Euskaltasunaren inguruko topikoaek Espainiaren periferian eratutako hegemonia edo zentralitatearen interesei erantzunez sortu direla salatzen du bertan. Nola noble eta odol garbia izatea gauzarik onena zen garaian, euskalduna Espainiako aitoren seme gorena bihurtu zen; nola gure hizkuntzaren aurkako irain etengabeei erantzuteko basko-iberismoa bultzatu zuten, etab.

Boterearen kolonialtasuna da desberdintasun koloniala sortzen eta erreproduzitzen duen bitartekoa. Desberdintasun kolonialaren eraginez, biztanleria edo jende-multzoak sailkatu eta dituzten gabezien edo gehiegizko ezaugarrien arabera identifikatzen dira. Horrek sailkatzen duenarekiko desberdintasun eta gutxiagotasuna markatzen du. Boterearen kolonialtasuna, enuntziatzeko leku epistemiko bat da, batez ere, boterea deskribatzen eta legitimatzen deneko lekua hain zuzen (Mignolo, 2003, 39. or.).

Bestalde, **Lapiko kritikora** zaletu ginen, identitateari eta historiari buruzko eztabaidek bete-bete erantzuten ziotelako gure kezka bati: gaur egungo borrokaren justifikazioak iragan loriatsu batean bilatu nahia, 1512aren aurretik gatazkarik egon izan ez balitz bezala, eta orain berreraiki BEHARREKO historia, hori bai, egiazkoa eta berdaderoa balitz eta mitoez guztiz erantziabalego bezala. Alegia, esentziak borondatearen gainetik.

Izan ginelako gara? Nahi dugulako izango gara!

Eta hortxe kokatu behar dugu *Manifestu atzeratuari* heltzeko erabakia. Gaurkotasun erabatekoa duen testua da, inondik ere, Lapikoko eztabaida luzeetan ederki ikusten denez. Gainera, literaturaren eta literatur kritikaren eginbeharrak dugun ikuspegia islatzen du testuak, harako hark esan zuen bezala literaturak mailua izan behar baitu, alegia, errealitatearen kanpo geruza zartatu eta azpian —erabilitako hitz, irudi eta kontzeptuetan— dauden interes, indar-korrelazio, menpekotasun ideologikoak etab. azaleratu, garaian garaiko konfrontazio ideologikoari erantzun, agerikoa dirudiena auzitan jarri eta ezkutuko ideiak erakutsi, esaten ez dena esaten dena bezainbat aipatu eta aztertu, subjektua nola egituratzen den begiratu eta zein erreferentzia-gune dituen aditzera eman behar dituzte literaturak eta literatur kritikak, gure ustez. Hona hemen diogun hori askoz ere txukunago adierazten duten hiru aipu:

Hizkuntza ez da kategoria gramatikal abstraktuen sistema soil bat, ideologiak gainezka egiten dion lengoia bat baizik. Munduaren ikuskera bat, eta are iritzi jakin bat ere, ematen digu eta bizitza ideologikoko esparru guztien arteko elkar ulermen maximum bat bermatzen du (Bajtin, 1991, 88. or.).

Testuak, beraz, bi orientazio ditu: sortzen deneko esanahi-sistemara zuzentzen da, batetik, hots, garai eta gizarte jakin batzuetako hizkuntza eta lengoaiara, eta diskurtso gisa parte hartzen dueneko prozesu sozialera, bestetik (Kristeva, 1978, 11. or.).

Ez da erraza erabateko berridazkuntza batek haustura zein etendura inperialistan aurrera egitea, haustura hori zinezko lege gisa jokatzeko duen atzerriko legeko sistema baten azpian, Egia bakartzat finkatutako ideologia baten atzean eta “natiboa” norbera taxutzen duen besteabaltz bezala hezten diharduten giza zientzia batzuen menpe ezkutututa egonik (Spivak, 2010, 137. or.).

Manifestu atzeratua

Ez gara Azurmendiren aurkezpena egiten luzatuko, hari buruzko monografia txukuna argitaratu berri baitu Hegats literatur aldizkariak (45. zk.).

Lehen zati honetan, Manifestua Lapiko kritikoa agertu diren zenbait eztabaidaren harira aztertzen eta komentatzen saiatuko gara, eta, lehenik eta behin, testu hau aukeratzera eraman gaituen ardatzari helduko diogu.

Baina libertatea ez da eder
(...)

Etorkizunean dago.

Andoni Olariagak 2010eko ekain-uztailean Garan eta Berrian argitaratutako “Histori(et)atik aska gaitezen” iritzi-artikulu eta artikulu horrek eragindako eztabaida hartuko dugu oinarritzat, Azurmendik orain dela 40 urte zioena eta gaur egun oraindik dirauen eztabaidari heltzeko.

Hauxe diosku Olariagak: “Historia istorio bihurtu behar dugu. Guk nahi dugun Euskal Herri askea ez baita ezein historiarekin demostratzen. Guk nahi dugun Euskal Herria orain behar eta erabakiko duguna da. (...) Espainiak historia loriatsu, metafisiko (Espainia betidanik da, beraz, anti eta ahistorikoa), eta te(le)ologiko (nahitaez da Espainia den bezalakoa, ezin zen bestelakoa izan) bat muntatu digu, eta bertara kateatu gaitu. Galdera hau da: zergatik interpretatu/eraiki historia beraiek egiten duten forma berean?”.

Eta hona hemen Azurmendiren erantzuna: “Gure herriak ez dauka kondairarik. (...) Ez, ba, bilatu kondaira unibertsalen liburu handietan gure inperiorik”. Hau da, iragan handirik izan ez genuelako, ez al dugu eskubiderik etorkizun duin, aske bat izateko? Etorkizun (aske) bat izateko eskubidea lortzeko, beste inoren aurrean horretarako eskubidea dugula frogatzeko halako label bat erakutsi behar al dugu, eta label homologatu hori ez badugu, asmatu? Azurmendik dioen moduan, “Baina libre izatea gauza ikaragarri zaila da Marx batedo 1789 bat izan ez duen herri zorigaiztokoarentzat. Zerekin pagatu behar du?”. Zorigaiztoko izateari uzteko “Gernikako arbola bat asmatu digute”, eta, Olariagaren hitzekin jarraituz, “Horrela, nazioaren existentzia historiara kateatzen da, herritarren borondatek haraindi. (...) Aldiz, historiak erakutsi eta esan behar al digu Euskal Herria izan badela edo ez dela existitzen? Ondorioz, historiak esan behar al digu zein zentzutan izan behar den askea edo subordinatua?”.

Ezetz uste du Azurmendik: “Guk, guztiz ximple, libre izan nahi dugu. Nahi dugu, besterik ez”. Olariagaren testuarekin jarraituz, “Historiak ez digu esaten politikoki zer izan behar garen edo izango garen; hori gure borondateak erabakiko du. Izan ere, badago saiakera bat historiaren interpretazio esentzialista egin eta oraina historiako zenbait gertakaritara kateatzeko. Horrela, norberaren proiektu politikoa justifikatzeko historiaren teleologia bat auresuposatzen da eta iraganeko gertaerak orainaldira lotzen dira (Nafarroako estatua da berreskuratu behar omen dena)”. Baina Azurmendik berak salatzen duenez, “gure kausaren abokatuok”, hots, “libre izatea eta handi izatea nahasi diguten gureak” dira, hain zuzen, iragan-min hori bizi dutenak, eta iraganari kateatuta bizi direnak: “Eta San Inazioaren, Xabierren, Txurrukaren eta Elkanoren eta Habeas Corpusen eta nik dakit noren gomendio guztiak biltzen eta banatzen saiatu zaizkigu...”.

Arreta merezi duen beste puntu bat aipatzen du Azurmendik zeharka: Zeinek taxutzen, finkatzen du gure iragana? Irakasten diguten historiak —grande y librerren liburuetan zein gure kausaren abokatuok kanonizatutako bertsioan—protagonista berberak izaten ditu beti, eta botere-banaketan eragina zeukaten/daukaten (hango nahiz hemengo) eliteetako ordezkarien egintzez osatutako errelatoa izaten da historia hori. Non gelditzen dira ahotsik gabekoek kezka, interes, oinaze eta bizipenak? —ikus SPIVAK, G. (1987) Can the subaltern speak?—. Izan ere, Manifestuak dioten bezala, “Ta ez horiengatik, ezpada guzti horien kontra nahi dugu libre izan kondaira guztiaren kontra”.

Alegia:

Poema txar batean
deklaratu behar diot
gure gauari ezetz.

Goizaren kontra,
Gernikako arbolaren kontra
eta herriaren alde.

Deklaratu behar diot kaleari
gure jauntxoak ez dirala
sekula gure herria izan ta izango.

Lapiko Kritikora itzulita, hona Galfarsorok zer dioen Identitate nazionala, nazionalismoa, independentzia artikuluari egindako [5. erantzunean](#):

[Lotura du honek, bestalde, Bartzelonan sumatzen dugun miresmen batekin, zooko animalia exotiko bilakatzen gaituena, vascoa eta beste ezer ez izatera kondenatzen gaituena, eta Azurmendik ederki islatzen duena:

Aragi hau ez da Gernika-ko arbola]

Hona hemen Galfarsororen hitzak:

“Azken finean, Euskal Herrian irabazteko daukagun estatuak efektu zuzena izango baitu: gaur egungo “euskalduna” kategorian nagusitzen den simulakro etnikoaren amaiera.

(...) Gaur egungo formazio etniko-kultural petral baten kide subordinatua izatea, izan ere, paradoxalki, galtzailearen nartzisismo bereizle eta handiputz baten gisan agertzen da maiz.

(...) Euskal txobinismo erregionalistaren sintomak gozatzen du [euskal nazionalismoa]”.

Horixe bera salatzen du Atutxak, Tatxatuaren azpi nazioaz saiakeran: “Beste euskaldunaren duintasuna ez da zapal dutako nortasunari berari begira egiten, botere inperialistatik zetorren babesa lortzeko baizik, zerbitzu eta menekotasunaren truke: lortzen zuten “berezko aitonen seme” izaeraren truke.

(...) Azkenean, boterearen diskurtso hegemonikoa klientelismoan errotzen den alteritate negatiboan ezartzen da berriro ere: berriro ere Euskal identitate subalternoak bere burua irudikatzeari uko egiten dio inperioa jatorritik eraikitzen saiatzeko. Erlazio koloniala justifikatu eta klientelismo hegemonikoak baldintzatutako diskurtsoa sortzen du”.

Izan ere,

Baldin gure herriak ikasten ez badu
Gernika-ko arbola aritz normal bat zala
(aritzak ote dira behar dituguna)
ta euskal herria edozein herri bat
(...)

Galfarsororekin jarraituz:

“Salatzea jatorrizko paradisu matriarkal hau hasiera-hasieratik ar-nagusitasunaren legitimaziorako euskarri nagusizat erabili izan dela. Zentzu estriktoki korrelatiboan, orduan, gauza bera egin behar da nekazal-euskalduntasunaren eraikuntza antropologiko Eden-

iko/endemikoekin behin eta betikoz. Hain zuzen ere, Europako herri zaharrena, hizkuntza misterioitsua, izaera “etniko” berezia, oinarriko demokrazia herritar ez-hierarkiko eta errepresentagarria, jatorrizko matriarkagoa, arbasoen ohituren zaindaria... edo holako mistifikazio konpentsatzaileak, politikoki behintzat inguruko aginte eratuaren legitimaziorako tresnak direlako oharmenaz jabetu behar dugu; eta behingoz onartu bide horretatik jarraituz gero ez dagoela gerorako askatasunik, subordinazio eta menpekotasun iraunkorra baizik. Gainera, gauzak horrela ikusita, euskal berezitasunaren fantasia idealizatu hauetaz baliatzeko joera nabarmenena, gaur egun, nondik eta, kurioski, “tolerantzia” eta “pluralitatea” eta “dibertsitatea” nonahi eta nolana azpimarratzen dauden eskutik datorrela; gehienbat, gainera, multikulturalismo (edo kulturantzatasun) aurkitu berriaren predikamenduan oinarritzen dena; non eta Besteen (“adituak”, kazetariak, turistak, kosmopolita “modernoak”...) autentizitatearen kontsumorako euskal berezitasunaren aura enigmatikoa mimatu guraz, berezitasunaren estigma politikoa minatu gura dan; hau da, gu geu humano arrunt eta normal bilakatu eta izateren posibilitatea minatu gura daue, estatuaz jabetutako egiazko independentzia politikoarekin normaltasun arruntaz jabetzeko posibilitatea (...), kokotsak bai, eder askoak baina bakarrik vasco de verdad batek prestatzen dituenean, vasco noble batek eta ez beste horiek”, etab. etab.

Iragana kontuan hartu behar dugu, noski, baina istorio (eta ez historia) gisa, gure aurrekoek egindako akatsak eta metatutako jakintza guztia “eguzki zaharrak argi berria eman” dezan erabiltzeko. Baina, Olariagak dioenez, “Etorkizunera goaz, ez iraganera. (...) Euskal Herriak ez du iragan hoberik behar (...), Euskal Herriak etorkizuna behar du hobea izan”, eta Azurmendiren olerkiarekin bukatzeko, “Orduan bai, eguzki zaharrak argi berria eman du. Astronomoak ez dira enteratuko, ezta eguzkia bera ere, baina gu bai. Eta nahikoa zaigu hori”.

Azkenik, Hegatsek Azurmendiri buruz argitaratutako monografikoan Lorea Agirrek egiten dion elkarrizketako aipamen batek ederki borobiltzen du orain arte azaldu duguna: “Gure alde edertasuna dago, minoritarioa beti. Azkenean gure alde gure borondatea dago, beste ezer ez. Eta merezi duela, sinesmena”.

Bibliografia:

AGIRRE, Lorea (2010), “Joxe Azurmendi: ‘Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaldunak’” in Hegats, 45. zk.

ATUTXA, Ibai (2010). Tatxatuaren azpiko nazioaz, Utrisque [oraindik argitaratu gabe].

BAJTIN, Mijail (1991), “La palabra en la novela” in Teoría y estética de la novela, 88. or., Taurus, Madril.

KRISTEVA, Julia (1978), Semiótica, 11. or., Fundamentos, Madril.

LAPIKO KRITIKOA: <http://basque.criticalstew.org/>

MIGNOLO, Walter (2003). Historias locales / diseños globales. *Colonialidad, conocimientos subalternos y pensamiento fronterizo*, 39. or., Akal, Madril.

SPIVAK, Gayatri (2010), Crítica de la razón poscolonial. Hacia una crítica del presente evanescente, 137.

or., Akal, Madrid.